



Pribatutasun Politika

Pribatutasun Politika honetan ("Politika"), guk, Qualcomm Incorporated enpresak eta gure filialek (kolektiboki, "gu" edo "gure"), datu pertsonalak biltzeko, erabiltzeko, prozesatzeko eta transferitzeko moduari buruzko informazioa ematen dugu. Qualcomm Incorporated enpresak eta gure filialek erakunde global bat osatzen dugu eta kudeatzen ditugun datuak mundu osoko informazio-sistemetan, enpresa-prozesuetan eta negozioetan (entitate juridikoak) zehar partekatzen ditugu. Hori dela eta, Politika honetan "datu pertsonalak" terminoa erabiliko dugu aplikatu ahal zaizkigun pribatutasun eta datuen babeserako legeak betearazteko. "Datu pertsonalak" identifikaturik dagoen pertsona fisiko bati buruzko informazioari deritza, edo pertsona fisiko bat identifikatzeko erabili daitekeen informazioari (bere kabuz edo erabilgarri egon daitezkeen bestelako datuekin batera).

Irismena

Politika hau honako hauei aplikatuko zaie: politika honi lotutako esteka bat duten edo berau aipatzen duten gure webgune, produktu, zerbitzu, software eta aplikazioei (kolektiboki "Zerbitzuak" deritzona). Politika honek Zerbitzuen bidez bildutako datuak soilik babesten ditu, eta ez beste moduren batez bildutako edo prozesatutako datuak (hala nola berezko pribatutasun politika bat duten beste zerbitzu batzuen datuak biltzeko jardunbideak). Noizbehinka, ikerketetan eta asmo bereziko web-orrietan Politika honetara jotzen dugu (Lanpostuen web-orrietan, adibidez). Halakoetan, Politika hau jakinarazpen berezian edo onespren-eskaeran agertzen diren aldaketekin aplikatuko da (hau da, bildutako datu-moten edo bilketaren xedeen arabera).

Datu-motak eta bilketa-metodoak

Hainbat datu pertsonal biltzen ditugu jarraian azaldutako moduak erabiliz. Dena dela, biltzen ditugun datuak aukera ditzakezu. Zure datuak emateko eskatzen dizugunean, horiek ez ematea aukera dezakezu. Baina datuak emateari uko egiten badiozu, produktua edo zerbitzua erabiltzeko gaitasunak murriztu litezke.

Ematen dituzun datuak. Informazioa eskatzen diguzunean, izena ematen duzunean, produktu edo zerbitzu bat eskatzen duzunean edo informazioa apropos bidaltzen diguzunean, zure izena, helbide elektronikoa(k), posta-helbidea(k), telefono-zenbakia(k) eta zure negozioarekin erlazionatutako datuak biltzen ditugu. Ordainpeko zerbitzuei dagokienez, ordaintzeko erabilitako informazioa (adibidez, kreditu-txartelaren zenbakia eta erlazionatutako egiaztapen-datuak), telefono-zenbakia eta fakturazio- eta bidalketa-helbideak ere bilduko ditugu.

Gure webguneetatik automatikoki biltzen ditugun datuak. Gure webguneetako batean sartzen zarenean, zure ordenagailuaren edo gailu mugikorraren datu orokorrak biltzen ditugu, hala nola nabigatzaile mota, sistema eragilea, IP helbidea eta webgunean sartzeko erabilitako domeinu-izena. Halaber, gailu mugikor baten bidez sartzekoan, gailu motari buruzko datuak ere bilduko ditugu. Era berean, gure webguneak erabiltzeko moduari buruzko informazioa ere biltzen dugu; besteak beste, webgunean sartzen zaren data eta ordua, kontsultatutako atal edo orriak, webgunea ikusten emandako denbora, webgunera itzuli zaren aldi-kopurua eta bestelako klik segidei buruzko datuak.

Cookieak. Cookieak, web-balizak edo antzeko teknologiak erabiltzen ditugu gure webguneen edo web-aplikazioen erabilerari buruzko datuak biltzeko. Cookie bat, webgune batean sartzen zarenean, zure ordenagailu edo gailuaren disko gogorrean gordetzen den testu-fitxategi txiki bat da. Cookieak erabiltzen ditugu gure webguneen eta zerbitzuen funtzionamendua hobetzeko, hala nola: (1) zure datuak gogoratzen ditugu webgunera itzultzen zarenean informazio bera sartu behar ez dezazun; (2) eduki edo eskaintza pertsonalizatuak ematen dizkizugu webgunean; (3) estatistika orokorrak garatzen ditugu webgunearen errendimendua kontrolatzen laguntzeko, ikerkuntzak egiteko eta gure eduki eta zerbitzuak hobetzeko, eta (4) gure webguneen eta zerbitzuen segurtasuna babesteko.

Halaber, web-analisiak egiten dituzten kideak, iragarleak edo publizitate-sareak bezalako beste enpresa batzuek ere euren cookieak edo web-balizak (1x1 pixel.gif edo ekintza-etiketa gisa ere ezagutzen direnak) jar ditzakete webgunean. Adibidez, hirugarrenen publizitate-enpresak erabiltzen ditugu Interneten iragarkiak gure izenean hornitzeko edo beste enpresa batzuen iragarkiak gure webgunean azaltzeko. Hirugarrenen publizitate-enpresa horiek cookieak eta web-balizak erabiltzen dituzte iragarkiek bezeroak (gu ere kontuan hartuta) erakartzeko izan duten eraginkortasuna neurtzeko eta hobetzeko. Horretarako, enpresa horiek denboran zehar gure webgunera eta beste webgune batzuetara egin dituzun bisitei buruzko informazioa erabiltzen dute. Informazio horrek ondorengo datuak barne har ditzake:

erakutsitako iragarki-banda baten data eta ordua, cookietan dagoen identifikatzaile eksklusiboa eta gailuaren IP helbidea. Gainera, datu horiek iragarkiak pertsonalizatzeko erabili daitezke. Modu horretan, gehien interesatzen zaizkizun produktuei eta zerbitzuei buruzko iragarkiak agertuko dira. Jardunbide honi eta publizitate pertsonalizatuak eskaintzen dizkizun aukerei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, irakurri datuak ez partekatzeari buruzko [artikulu hau](#).

Nahi izanez gero, cookiei uko egin diezaiekezu, baina hori eginez gero, webguneko hainbat ezaugarri ezin izango dituzu erabili edo ezin izango dituzu gure eskaintza guztiak aprobetxatu. Kontsulta ezazu zure nabigatzailearen "Laguntza" menua, cookieen hobespenak nola aldatzen diren jakiteko. Informazio gehiago jaso nahi baduzu, irakurri gure Cookiei buruzko Politika.

Softwarea eta aplikazioak: Qualcomm Incorporated enpresaren filialek gailu mugikorrenentzako softwareak, aplikazioak eta zerbitzuak sortzen dituzte gailuen errendimendua hobetzen laguntzeko, bateria aurrezteko, gailuen segurtasuna hobetzeko edo beste onura batzuk eskaintzeko. Software-aplikazio horien bidez kokapenari buruzko datuak bil ditzakegu, baita identifikatzaile eksklusiboak (hala nola txip multzoaren serie-zenbakia edo nazioarteko harpidedunaren IDa), gailuan instalatuta dauden edota abian dauden aplikazioei buruzko datuak, konfigurazioari buruzko informazioa (adibidez, marka, modeloa eta haririk gabeko operadorea), sistema eragileari eta bertsioari buruzko datuak, softwarearen konpilazio-datuak eta gailuaren errendimenduari buruzko datuak (hala nola txip multzoaren errendimendua, bateriaren erabilera eta datu termikoak) ere. [Informazio gehiago](#)

Hirugarrenen iturriak: Beste iturri batzuetatik ere eskura ditzakegu datu pertsonalak, hala nola datu-agenteengandik, sare sozialetatik, iturri publikoetatik edo beste kide batzuegandik.

Bilketaren xedeak eta datuen erabilera

Zuri buruzko datu pertsonalak zure onespenearekin biltzen eta prozesatzen ditugu. Halaber, erabiltzen dituzun produktuak hornitzeko beharrezkoa den heinean ere bildu eta prozesatuko ditugu datuak, negozioa gidatu, kontratuko eta legezko betekizunak bete, sistemen eta bezeroen segurtasuna babestu edo legezko bestelako interesak betetze aldera. Ondorengo xedeetarako biltzen eta erabiltzen ditugu datuak, besteak beste:

- Zuk egindako eskaerei erantzuteko; adibidez, informazio-eskaera bati, zerbitzu batera harpidetzeko eskaerari edo produktu bat erosteko eskaerari;
- Eskatu d(it)uzun Zerbitzua(k) emateko, kudeatzeko, mantentzeko eta babesteko;

- Gure negozioia gidatzeko eta hobetzeko, zerbitzuak eta sistemak kudeatu, babestu eta hobetzea barne, produktu eta zerbitzu berriak garatzeko eta barne-negozio asmoetarako;
- Gure Zerbitzuak erabiltzen dituztenen hobespenak hobeto ulertzeko, Zerbitzuen erabilerari buruzko estatistika orokorrak biltzeko eta gure webgune zein Zerbitzuekin izan duzun esperientzia pertsonalizatzen laguntzeko;
- Gure teknologiei, produktuen edo zerbitzuen kaleratzeei, albisteei eta bestelako jakinarazpenei buruzko informazioa emateko; eta
- Politika honetan edo datuak biltzen ditugun momentuan deskribatutako beste edozein erabilerarako.

Xede horiek lortzeko, eta aplikatu beharreko legeek ahalbidetzen duten neurrian, hainbat iturritatik jasotako datu mota ezberdinak konbina ditzakegu.

Datuak non gordetzen eta prozesatzen ditugun

Datuak Ameriketako Estatu Batuetan eta munduko beste zerbitzari batzuetan gordetzen eta prozesatzen ditugu, hala nola Asian eta Europako Esparru Ekonomikoan. Politika honen xede diren datu pertsonalak edonon gordetzen edo prozesatzen ditugula ere, beharrezkoak diren neurriak hartzen ditugu datuak Politika honen eta lege aplikagarrien arabera prozesatzen direla ziurtatzeko.

Datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikotik beste herrialde batzuetara transferitzen ditugu. Horietako batzuek ez dute, Europako Batzordearen arabera, datuen babesak izan beharko lukeen segurtasun-maila askirik. Horiek transferitzen ditugunean, hainbat lege-mekanismo erabiltzen ditugu (zure onspena edo lege-kontratuak, esaterako).

Datu pertsonalak jakinaraztea

Qualcomm-en (honen filialak barne) zure datu pertsonaletarako sarbidea dugu eta datu horiek gure izenean prozesatzen dituzten hirugarren saltzaile edo zerbitzu-hornitzaileekin partekatzen ditugu, betiere Politika honetan zehaztutako xedeak betetzeko asmoarekin. Halaber, gure bezeroen langileei prestakuntza edo bestelako zerbitzuak eskaini ahal dizkiegu. Kasu horietan, prestakuntza edo bestelako zerbitzuen erabilerari buruzko datuak parteka ditzakegu lehen aipatutako bezeroekin, haien negozioetan erabil ditzaten. Bestalde, zure datuak parteka ditzakegu legeak ezarritakoaren arabera edo gure zein besteren legezko

eskubideak baliatzeko edo babesteko; adibidez, mugarik gabe, legeak betearazteko ardura duten funtzionarioek eskatuz gero eta auzitegi-prozedurekin erlazionatutako eskaerak gauzatzeko. Era berean, zure datuak partekatu edo transferitu ahal izango ditugu gure negozioarekin edo haren zati batekin zerikusia duen salmenta potentzial, fusio, transferentzia edo bestelako berrantolaketaren bat dela eta. Azkenik, zure datu pertsonalak ere partekatu ahal izango ditugu betiere horretarako baimena eman badiguzu.

Zure aukerak

Datuak partekatzea edo alde batera uztea. Zenbait kasutan, posta bidezko marketinean, esaterako, zein datu-mota biltzen, erabiltzen edo partekatzen diren aukera dezakezu. Egoera horietan, zure aukera errespetatutako dugu.

Interesdunen eskubideak. Zenbait herrialderen edo estaturen legeek zure datu pertsonalak atzitzea, zuzentzea, ezabatzea, mugatzea edo bestelako eskubideak gauzatea ahalbidetzen dute. [Egin klik hemen eskubide horiek gauzatzeko.](#)

Ez monitorizatu. Gaur egun ez diegu erantzuten web-nabigatzaileek arrastoari ez jarraitzeko bidaltzen dituzten "Do Not Track" (DNT) seinaleei. Oraindik ez dago araubide estandarrik DNT seinaleak nola interpretatu beharko liratekeen zehazten duenik, ezta horiek jasotzen dituzten webguneek eta hirugarrenek zer nolako urratsak hartu beharko lituzketeen zehazten duenik. Hala eta guztiz ere, datuen bilketa eta erabilera kontrolatzeko hainbat metodo erabil ditzakezu, hala nola zure nabigatzailearen konfigurazioko cookie-kontrolak edo gorago aipatutako "Cookieak" atalean azaltzen diren iragarki pertsonalizatuen kontrolak.

Atxikitzea

Zure kontua aktibo dagoen bitartean zure datu pertsonalak atxikitzen ditugu zerbitzuak hornitu ahal izateko. Datu pertsonalak ezabatuko ditugu zentzuzko denbora-tarte bat igarota, bildu zirenerako negozioaren xedea betetzeko beharrezkoak ez direnean. Hala ere, datu pertsonalak behar bezala gordeko eta erabiliko ditugu lege-betekizunak bete, gatazkak konpondu eta hitzarmenak betearazte aldera.

Segurtasuna

Internet bidez egindako transmisioak ez dira beti % 100 seguruak edo akatsik gabekoak. Halaber, zentzuzko neurriak hartzen ditugu zure datuak ez galtzeko, horien erabilera okerrik egon ez dadin eta baimenik gabe atzitu, jakinarazi, aldatu edo ezabatu ez daitezen. Zure erantzukizuna da gure Zerbitzuen pasahitzak eta erabiltzaile-IDak babestea, baita horien segurtasuna arriskuan jarri dela susmatuz gero guri jakinaraztea ere. Horretarako beherago agertzen den harremanetarako moduren bat erabil dezakezu. Gure Zerbitzuen erabilera oker bat egiten baldin bada zure pasahitza eta erabiltzaile-IDA erabiliz, zu izango zara erabilera horren erantzule bakarra.

Haurren pribatutasuna

Gure Zerbitzuak helduentzako dira. Aplikatu beharreko legeen arabera, ez dugu nahita bilduko haurrak identifikatu ahal dituzten informazio pertsonalik. Honekin batera, haurrek datu pertsonalik ez bidaltzea eskatzen dugu.

Zuzenketak

Politika honen atalen bat edonoiz aldatzeko, ordezkatzeko, gehitzeko edo kentzeko eskubidea gordetzen dugu. Dena dela, egindako aldaketen berri emango dizugu, Politika eguneratu egin den azken data adierazita. Politikan aldaketa garrantzitsuak egiten baditugu, Internet bidez jakinarazpen bat bidaliko dizugu gutxienez hogeita hamar (30) egun aurretik zure onespena lortzeko, legeak ezarritakoaren arabera. Gure webguneetara sartzean edo gure Zerbitzuak erabiltzean, Politika honen azken bertsio hau onartzen duzu. Erabiltzaileek Politika hau noizbehinka berrikustea gomendatzen dugu, egindako aldaketen berri izateko.

Gurekin harremanetan jartzea

Gurekin harremanetan jartzeko, bidali mezu elektronikoa bat privacy@qualcomm.com helbidera, edo idatzi helbide honetara: Qualcomm Incorporated, Attn. Privacy Counsel, 5775 Morehouse Drive, San Diego, CA 92121.

Indarrean sartzen den data: 2019ko apirilaren 30a